



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 4a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak ezetsi du (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2020ko ekainaren 9ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da zehaztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik eta Foru Sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitateetatik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazio prozesuen aurrean izan beharreko betebeharrak eta mugak.

2. Lege honen bidez, bermatu nahi da enpresek artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako entitateetatik jasotzen dituzten dirulaguntzak Nafarroaren garapenera ekarpen ekonomiko eta soziala egiteko izan daitezela, deslokalizazio prozesuei aurre egite aldera.

Zioak: Idazketa teknikoki hobetzea, Foru Sektore Publiko Instituzionalaren eremua behar bezala definituz.

2. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

2. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe izan litzateke testu berria:

“2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

Foru lege hau enpresaren egoitza zein lantokia Nafarroan izan eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 2. artikuluan zehaztutako Foru Sektore Publikoaren laguntzak jaso dituzten enpresei aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan eta moduan”.

Zioak: Testua hobetzen du, foru legearen aplikazioaren eremu subjektiboa Foru Sektore Publikoari dagokiola zehaztuz

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

1. Foru lege hau enpresaren egoitza zein lantokia Nafarroan izan eta Nafarroako laguntzak jaso dituzten enpresei aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan eta moduan.

2. Foru lege honen ondorioetarako, enpresatzat hartuko da jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen erakunde oro, edozein dela ere bere forma juridikoa”.

Zioak: Idazketaren hobekuntza teknikoa, enpresaren kontzeptua zehaztuz.

4. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“3. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa.

Foru lege honen ondorioetarako, Foru Sektore Publikotik jasotako laguntzat hartzen dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren babesean emandako dirulaguntzak eta Foru Sektore Publikoko beste erakunde batzuek emandako gainerako laguntzak, hartzen duten forma juridikoa edozein dela ere”.

Zioak: Testua hobetzen du.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“3. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa.

Foru lege honen ondorioetarako Nafarroako instituzioetatik jasotako laguntzak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotakoak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen esparruan ematen direnak, bai eta Foru Sektore Publiko Instituzionalako entitateek ematen dituztenak ere, entitate horietako bakoitzaren aurrekontuen kargura, I+G+b jarduerak sustatzera bideratutakoak izan ezik, horien helburua lehiakortasuna edo ezagutzaren transferentzia hobetzea bada”.

Zioak: Foru Sektore Publiko Instituzionalaren eremua teknikoki zehaztea eta lege honen eremutik kanpo uztea, irizpide orokor gisa, lehiakortasuna edo ezagutzaren transferentzia hobetzea helburu duten I+G+b jarduerak sustatzeko dirulaguntzak. Hala ere, deialdi bakoitzaren oinarri arautzaileetan, departamentu eskudunak betebeharrak ezarri ahal izango ditu, kasuan kasu sustatzen den jarduera espezifikoaren arabera. Garrantzitsutzat jotzen da I+G+b bultzatzeari buruzko inolako zalantzarik ez sortzea, eta, beraz, Nafarroan berrikuntza-ekosistema indartzea, bai enpresena, bai jakintzaren eragileena.

6. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“4. artikulua. Enpresen deslokalizazioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, enpresa bat deslokalizatu egin dela ulertuko da, bi baldintza hauek batera gertatuz gero:

a) Enpresak Nafarroan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo hori gertatu aurreko nahiz ondorengo hiru urteetan, Nafarroan jarduera bertan behera utzi duen erakundeak berak jarduera hori Nafarroatik kanpoko beste leku batean garatzea, edo beste erakunde batek garatzea, baldin eta harekin Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan aipatzen diren harremanak baditu, edo harekin lotuta badago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Bigarren jarduera bertan behera geratu dela ulertuko da, bai erakundea desegiten denean eta baita, desegin ez arren, Nafarroan dituen produkzio instalazio guztiak edo horietariko batzuk ixten dituzenean ere.

3. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da, baldin eta, erakundeak Nafarroan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada. Hori dela eta, artikulua honen lehen atalean aipatutako baldintzak eman aurreko bi urteetan erakundeak Nafarroako lantokietan izandako langileen batzuek kopurua hartuko da kontuan.

4. Enpresak Nafarroan egin izan duen jarduera lurralde horretatik kanpoko leku batean garatzen ari dela ulertuko da, bai kanpoko leku horretan jarduera abian jartzen bada eta baita kanpoko leku horretan lehendik zegoen enpresa-jarduera hazten bada ere, Nafarroan bertan behera utzi den edo murriztu den heinean.

5. Salbuespenez, behar bezala egiaztatutako kasuetan, enpresa-deslokalizaziorik ez dagoela ulertu ahal izango da, baldin eta artikulua honen 1. apartatua jasotako baldintzetan egokitzen den enpresak, zuzenean edo berarekin Merkataritzaren Kodeko 42. Artikuluan aipatutako harremanak dituen beste erakunde baten bitartez, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarri-

tako baldintzetan harekin lotuta dagoen erakunde baten bitartez, Nafarroako lurralde eremuan enpresa-jarduera berriak abian jartzen baditu, eta batean galdu dituen adina lanpostu edo gehiago Nafarroako beste eremu batean sortzen baditu”.

Zioak: Artikuluaren testua eta sistematika hobetzen ditu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan araututako sozietate-lotura aipatuz.

7. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“4. artikulua. Enpresen deslokalizazioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, enpresa bat deslokalizatu egin dela ulertuko da, bi baldintza hauek batera gertatuz gero:

a) Enpresak Nafarroan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo hori gertatu aurreko nahiz ondorengo hiru urteetan, Nafarroan jarduera bertan behera utzi duen erakundeak berak jarduera hori Nafarroatik kanpoko beste leku batean garatzea, edo beste erakunde batek garatzea, baldin eta harekin Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan aipatzen diren harremanak baditu, edo harekin lotuta badago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Bigarren jarduera bertan behera geratu dela ulertuko da, bai erakundea desegiten denean eta baita, desegin ez arren, Nafarroan dituen produkzio instalazio guztiak edo horietariko batzuk ixten dituen ere.

3. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da, baldin eta, erakundeak Nafarroan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada. Hori dela eta, artikulua honen lehen atalean aipatutako baldintzak eman aurreko bi urteetan erakundeak Nafarroako lantokietan izandako langileen batz-besteko kopurua hartuko da kontuan. Enplegu-murrizketaren batez bestekoa kalkulatzeko, foru lege honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira azpikontratutako enpresetako langileen plantillak eta enpresan edo enpresan lan egiten duten aldi baterako enplegu-enpresen bidez kontratatutako langileen plantillak. Azpikontratutako enpresa bateko edo ABLEko

langile batek lantoki horretan bere lan-jardueraren % 75 edo gehiago egiten badu, lantoki horretako langiletzat hartuko da. % 75etik beherakoa bada, 0,5 zenbatuko da.

4. Enpresak Nafarroan egin izan duen jarduera lurralde horretatik kanpoko leku batean garatzen ari dela ulertuko da, bai kanpoko leku horretan jarduera abian jartzen bada eta baita kanpoko leku horretan lehendik zegoen enpresa-jarduera hazten bada ere, Nafarroan bertan behera utzi den edo murriztu den heinean.

5. Salbuespenez, behar bezala egiaztatutako kasuetan, enpresa-deslokalizaziorik ez dagoela ulertu ahal izango da, baldin eta artikulua honen 1. apartatuan jasotako baldintzetan egokitzen den enpresak, zuzenean edo berarekin Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan aipatutako harremanak dituen beste erakunde baten bitartez, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan harekin lotuta dagoen erakunde baten bitartez, Nafarroako lurralde eremuan enpresa-jarduera berriak abian jartzen baditu, eta batean galdu dituen adina lanpostu edo gehiago Nafarroako beste eremu batean sortzen baditu”.

Zioak: Artikuluaren testua eta sistematika hobetzen ditu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan araututako sozietate-lotura aipatuz. Era berean, ukitutako erakundearen jardueraren murrizketa esanguratsua kalkulatzeko, kontuan hartu beharko lirateke azpikontratutako enpresen plantillak –erakunde nagusiarentzat lan egiten duten langileak kontuan hartuta–, bai eta ABLEen ere, enpresa berean lan egiten baitute, langile horiek guztiek ere zerikusia baitute haren jarduerarekin.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“2. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da, baldin eta, erakundeak Nafarroan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada. Hori dela eta, artikulua honen lehen atalean aipatutako baldintzak eman aurreko bi urteetan erakundeak Nafarroako lantokietan izandako langileen batz-besteko kopurua hartuko da kontuan. Deslokalizaziorik ez dagoela

ulertuko da, gutxienez 25 langileri eragiten ez badie”.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da deslokalizazioaren kontzeptutik kanpo uztea eragindako pertsonen kopurua txikia den egoerak, uste baita lege honen helburua ez dela enpresa txikietan gerta daitezkeen askotariko kasuistika-egoerei heltzea.

9. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“5. artikulua. Enpresaren jabeen konpromisoa

Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa jasoko da Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 14. artikulua aipatzen dituen dirulaguntzak emateko oinarri-arauetako gutxieneko edukiaren barruan, bai eta Foru Sektore Publikoko beste erakunde batzuen edozein laguntza emateko eragiketak formalizatzen dituzten negozio juridikoetako gutxieneko edukiaren barruan ere”.

Zioak: Deslokalizazio ezari buruzko enpresa-konpromisoaren erregulazioari buruzko testua hobetzea. Konpromiso hori Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 14. artikuluan aipatzen diren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen gutxieneko edukian sartu beharko da.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“5. artikulua. Enpresaren jabeen konpromisoa.

3. artikuluan jasotako dirulaguntzak emateko oinarri-arauetan, enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa jaso beharko da gutxieneko edukiaren barruan, eta beste horrenbeste egingo da Foru Sektore Publiko Instituzionaleko erakundearen laguntzak emateko eragiketak formalizatzekeo negozio juridikoetan ere”.

Zioak: Testuaren hobekuntza teknikoa.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“6. artikulua. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez egingo da, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

2. Deslokalizazio Deklarazioa foru lege honetako 2. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteko epean abiarazi ahalko da.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako departamentu eskudunaren txosten baten bidez hasiko da prozedura. Txostenean justifikatuko da bete egiten direla 2. artikuluan ezarritako inguruabarrak. Lehen instantzian burututako txostena interesatuari jakinaraziko zaio. Interesatuak hogeita hamar eguneko epea izango du txostenak dioenaren aurrean bere arrazoiak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

5. Interesatuaren ekarpenak jasotzeko epea amaitzen denean, hala badagokio, enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko proposamena aurkeztuko dio Nafarroako Gobernuari eskumena duen departamentuko titularrak.

6. Prozedurari amaiera emanaz, eta jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuak bi aukera izango ditu:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazio deklarazioa bertan behera uztea. Bi kasuetan interesatuari ebazpenaren jakinarazpena egingo zaio.

7. Nafarroako Gobernuaren azken ebazpenean enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertatu den zehaztuko da. Data hori foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartuko da”.

Zioak: Deslokalizazioa deklaratzeko proposamena garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloko departamentu eskudunaren eskumena izanen dela ezartzea. 3. apartatuan jasotako epea luzatzea, 15 eguneko epea oso doitu dagoela uste delako, eta zehaztapen tekniko gehigarriren bat gehitzea.

12. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“3. Enpresa bat deslokalizatzeko deklarazioan parte hartzen duten gobernuko departamentu bat baino gehiago edo foru-sektore publikoko erakunde bat baino gehiago badaude, deklaratzeko prozedura bakarra garatuko da, erregelamendu bidez zehazten den moduan”.

Zioak: Testua hobetzen du.

13. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

II. kapituluan beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa; honela geratuko litzateke idatzita:

“6. bis artikulua.- Enpresen deslokalizazioa saihesteko neurriak

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen III. tituluaren dirulaguntzen jarraipena eta kontrola egiteko aurreikusitako neurriez gain, Foru Sektorre Publikotik laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten merkataritza-sozietateen kasuan, laguntza horiek ematen dituzten erakundeek prozedura bat ezarriko dute enpresa hartzaileen jarraipena egiteko, eta urteko txosten bat egin beharko dute erabiler-mailari eta enpresa onuradunen egoera ekonomiko-finantzarioari buruz.

Jarraipen hori hileroko egin ahal izango da zailtasun ekonomikoko egoeran dauden enpresen kasuan, edo beren ekoizpen-zentroak edo ekoizpen-zentroek Nafarroan jarrai dezaten arriskuan jartzen duen beste edozein motatako egoeraren kasuan. Egoera horretan dagoen enpresari bideragarritasun-plan bat egiteko eskatu ahal izango zaio, eta plan hori azpikontrataturako enpresekin eta sindikatuarekin partekatuko da, diagnostiko bateratu bat egiteko.

Laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituen enpresak ez baditu betebeharrak horiek betetzen eta ez badu informaziorik ematen, dirulaguntzak itzultzeko prozedura hasiko da”.

Zioak: Kontrol-neurriak ezarri nahi dira, Foru Sektorre Publikoari ohartarazteko laguntzak edo dirulaguntzak jaso dituzten enpresen egoeraz, deslokalizazio-egoerak hobeki detektatze aldera.

14. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“7. artikulua. Jasotako laguntza itzultzea.

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaraturaz gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko hamar urteetan jasotako kopuruak, kopuru bakoitza jasotzen denetik aitorpen hori egiten den egunera arte sortutako berandutze-interesarekin batera. Deklarazio horren ondorioz, eta beraz egiten den egunetik aurrera, deslokalizazioa deklaratu zaion enpresak eta haren bazkideek ezin izango dute Nafarroako sektore publikotik laguntzarik jaso hurrengo hamar urteotan.

2. Dirulaguntzak itzuliz gero, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen II. tituluaren xedatutakoa aplikatuko da. Gainerako laguntzak itzuli behar direnean kasuan kasuko harremanari edo negozio juridikoari buruzko arauak beteko dira.

3. Foru Sektorre Publikoak ematen dituen dirulaguntzaz besteko laguntzei dagokienez, Gobernuak laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko prozedura onetsiko du. Oro har, merkaturako balioaren eta dena delako negozio juridikoan hitzartutako balioaren arteko aldea izango da”.

Zioak: Testua hobetzen du.

15. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****ETA GEROA BAI****AURKEZTUA**

7. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“7. artikulua. Jasotako laguntza itzultzea.

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaraturaz gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko zortzi urteetan jasotako dirulaguntza kopuruak, kopuru bakoitza jaso zuenetik deklarazioaren egunera arte sortutako berandutza-korrituekin batera.

2. Deklarazio horrek, halaber, itzuli beharreko dirulaguntzen zenbatekoaren % 20ko erretegia ordaintzeko betebeharrak ekarriko ditu enpresari.

3. Dirulaguntzak itzuli behar direnean lege zehaztutako dirulaguntzen araubide orokorrak xedatutakoa aplikatuko da”.

Zioak: 1. apartatuan ezarritako epea 10 urtetik 8 urtera murriztea, epe doituagotzat jotzen delako; eta epe jakin batez dirulaguntza berrietara aurkezteko ezintasunaren ordez errekaru bat ordaintzea, errotzearen eta deslokalizazioaren arloan lortu nahi diren helburuekin hobeto bat datorrela uste delako.

16. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe izanzen litzateke testu berria:

“2. Dirulaguntzak itzuli behar direnean legez zehaztutako dirulaguntzen araubide orokorrak xedatutakoa aplikatuko da. Gainerako laguntzak itzuli behar direnean kasuan kasuko harremanari edo negozio juridikoari buruzko arauak beteko dira. Deslokalizazioaren erantzule deklaraturako enpresak 3 hilabeteko epea izango du, deslokalizazioa deklaratzeko duen ebazpena jakinarazten denetik, jasotako dirulaguntza edo laguntza guztiak itzultzeko”.

Zioak: Jasotako dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko epe jakin bat ezartzea, behin enpresaren deslokalizazioa adierazi ondoren.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Lehen xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak onetsiko ditu 6 hilabeteko epean”.

Zioak: Erregelamendu bidezko garapenerako epea murriztea.

18. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“Xedapen gehigarria. Nafarroako Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren aldaketa.

Nafarroako Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105. artikulua 1. apartatuari p) letra gehitzen zaio. Hona testua:

«p) Parlamentuarekin lankidetzan aritzea, bertako kideek ahalmena izan dezaten Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoekin administrazio eta erakunde horiek egindako jarduketan ondoriozko datuak, txostenak edo administrazio-dokumentuak eskatzeko, deslokalizazio-deklarazioen bat egin den kasuetan»”.

Zioak: Gobernuak, deslokalizazio-praktikak egin dituzten enpresen datu fiskaletarako sarbidea ukatzeko –Simens-Gamearen kasuan bezala–, numerus clausus izenekoan babestu du bere burua, horiek baitira Nafarroako Zergei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 150. artikulua 1. apartatuaren salbuespenak. Gobernuak, halaber, honako hau adierazi du: “lege-arauak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak isilpekoak direla, eta tributu-arloko xedeetarako baino ezin izanen direla erabili, hau da, zergak aplikatzeko baino ezin izanen direla erabili. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkieten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean.

Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide individualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe”.

Gure ustez, datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren arteko tentsio horretan, deslokalizazio-deklarazioaren kasuetan, interes publikokoa da ezagut dadila enpresa batek jaso ahal izan dituen dirulaguntzak edo laguntzak ez ezik (bolumen ekonomikoagatik, besteak beste) izan dituen zerga-onurak ere. Enpresen sustraitzeari dagokionez, erkidegoarekin hartutako konpromiso bat ez betetzea ezin da saritu gardentasun faltarekin, Parlamentuko kideek informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzen dutenean eta, kasu zehatz horretan, opakuak eta erreserbatuak izateari utzi beharko lioketen datu fiskal horiek eskatzen dituztenean.

19. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“Xedapen gehigarria. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzea.

Lehena. 35.2 artikuluari beste letra bat gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«i) Kapital-sozietate, industria edo ekoizpen-unitate bat deslokalizatzea, inbertsio industrialak egiteko, nazioartekotzeko, lehiakortasuna hobetzeko, digitalizatzeko edo jarduera ekonomikoari eusteko dirulaguntza eman eta hurrengo 10 urteetan.

j) Dirulaguntzari buruzko araudian aurreikusita gainerako kasuetan».

Bigarrena. 42 artikuluari beste letra bat gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«h) Kapital-sozietate, industria edo ekoizpen-unitate bat deslokalizatzea, inbertsio industrialak egiteko, nazioartekotzeko, lehiakortasuna hobetzeko, digitalizatzeko edo jarduera ekonomikoari eusteko dirulaguntza edo laguntza eman eta hurrengo 10 urteetan».

Zioak: Sistema juridikoari koherentzia emateko, beharrezkoa da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean deslokalizazioak deklaratzeko kasuak sartzea, bai haiek itzultzeko arrazoiei buruzko apartatuan, bai arau-hauste oso astunen tipifikazioan.

20. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****ETA GEROA BAI****AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Xedapen iragankor bakarria.

Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako dirulaguntzen araubide iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie hura indarrean jarri aurretik emandako dirulaguntzei, baldin eta deslokalizazioa, 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen bada eta dirulaguntza eman zenetik zortzi urte igaro ez badira.

7.2. artikuluan ezarritako errekargua foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ematen diren dirulaguntzei bakarrik aplikatuko zaie”.

Zioak: Legearen atzeraeragina saihestea, bai deslokalizazioaren adierazpenean, bai 7.2 artikuluan ezarritako errekarguaren aplikazioan.

21. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****ETA GEROA BAI****AURKEZTUA**

Foru lege proposamenaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Foru Lege proposamena, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa”.

Zioak: Funtsezkoa iruditzen zaigu enpresak sustraitzearen garrantzia izenburura eramatea.

22. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****ETA GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOEK****ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK****AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“I

Azken urteotan hainbat dira, deslokalizazioaren fenomenoaren eraginez, gure komunitatea utzi eta atzerrian beren lantokiak kokatu dituzten enpresak. Etekinak areagotzeko helburuarekin eskulan eta kostu gastuak murriztuz, urte askoz gure lurraldean kokatu diren hainbat enpresak beren produkzio osoa edo zati handi bat kanpora bideratu dute.

COVID-19aren krisiarekin, enpresa batzuek beren interes ekonomikoengatik deslokalizazio berriak planteatzeko arriskua jarri da abian.

Deslokalizazio gisa ezagutzen den jardueraren bidez, zerbitzuen eta bitarteko ondasunen enpresek, besteak beste, haiekin mendekotasun-erlaziorik ez duten atzerriko hornitzaileei erosketak egiten dizkiete, eta atzerrian finkatutako sozietate afiliatuei transferentziak bideratzen dizkiete. Kasu gehienetan estatu batetik bestera egiten dira, eta ondasun edo zerbitzuok enpresak berak edo kanpoko zerbitzu-emaileek hornitu ahal dituzte. Kasu

gehienetan garapen urria edo gurea baino garapen txikiagoa duten herrialdeak izaten dira helmu-ga.

Estatu bateko enpresa batetik beste estatu batetako enpresa batera jarduerak eta lanpostuak lekualdatzea egiteko modu bat baino gehiago daude: alde batetik, akziodunen artean burutzen da, alegia, talde bereko enpresen artean. Beste alde batetik, kontratu bidez burutu ahal da, enpresa nagusi baten eta lehenago jatorrizko herrialdean ekoizten ziren ondasun edo zerbitzu inportatuak hornitzen dituen azpi-kontratatisten artean.

Gero eta ohikoagoa da erabaki eta botere guneak kanpoan kokatzen hastea. Hainbat interes direla tarteko (ekonomikoak, fiskalak...) botere eta erabaki guneak kanpoan kokatzea izaten da deslokalizazio prozesuen lehen urratsa. Denboran luzatzen diren prozesuak izan ohi dira maiz.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eskulana gero eta kualifikatuagoa eta ugariagoa izateak eta ekonomia zein komunikazioen mundializazioak areagotu egin dute deslokalizazioaren bideari ekin dioten enpresen kopurua.

Bereziki industrian ematen den egoera hau ekonomiaren mundializazio eta globalizazio prozesuetan txertatuta dago. Prozesu horiek enpresa transnationalei eragiten diete batik bat eta enpresa transnazional horietako gehienak halako ezauzgarriak dituzten estatuak bilatu ohi dituzte: egitura eta babes sozial mugatua, eremu sozialean gutxi garatutako lan legeriak, soldata baxuagoak eta ingurumenaren kontserbazioari dagozkion lege arau malguak.

Gero eta nabarmenagoa den fenomeno honek nafar sare industrialaren baitan ondorio oso larriak eragiten dituen egoera sortzen du. Alde batetik, deslokalizazio fenomenoaren bidez zuzenean galtzen diren enpleguak daude. Bestetik, deslokalizazioaren edo bere mehatxuaren eraginez lan baldintzetan ematen diren atzera urratsak.

Soldata murriztagoak izatea eta lan baldintzek txarrera egitea dira enpresek deslokalizazioaren mehatxua erabiliz ematen diren egoerak. Honen ondorioz, soldata bat izanik ere pobreziatik atera ezin diren pertsonen kopurua areagotu egin da.

Egoera honek gure ekonomia sarean sortzen dituen ondorioei aurre egiteko bitartekoak jartzera behartuta daude administrazioak. Era berean ezinbestekoa da gure ekonomiaren sustapeneko politika publiko egokiak diseinatu eta garatzea, Nafarroako ingurune sozioekonomikoaren bilakaerari lotutako politikak, aberastasuna sortu, berau

banatu eta bertako pertsonen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Politika horien baitan kokatzen dira enpresei bideratutako laguntza publikoak. Konpetentzian, gastuen murrizketan eta ondasunen metaketan oinarritutako merkatuaren aurrean, beste balio batzuetan eraiki behar da enpresak gizartearekin zein Administrazioarekin duen harremana. I+G+B zutabe izango duen eredu berrian oinarritutako ekonomia industrialak bultzatu behar dute nafar instituzioek, enpresa txiki eta ertainei irtenbideak, aukerak eta laguntzak eskainiz eta langileen parte-hartzearekin zein lan-kalitatearekin osatuko dena. Enplegu egonkorra eta birbanatu daitekeen aberastasuna sortu behar dira herri honen etorkizuna bermatzeko. Bide hori izango da lehiakortasunera eta kalitatezko lan- zein bizi-baldintzetara eramango gaituena.

Gure ekonomiaren baitan enpresek beste hainbat eragile sozial, ekonomiko eta sindikalekin batera betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa dela aitorturik, instituzioetatik bide hori garatzen laguntza emango zaie. Aldiz, funtsezkoa da gastuak murrizteko helburu soilarekin eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoi bidez justifikatu gabe beren jarduerak bertan behera utzi eta kanpora eramateko bidea hartzen duten enpresentzako mekanismoak arautzea. Deslokalizazio jarrera horiek lanpostu askoren galera eragin dezakete eta arazo larriak sortu gure herriko sare ekonomiko, produktibo eta industrialean.

Enpresen babeserako laguntza publikoak (fiskalak barne) bideratzen direnean, neurri horiei buruzko arautegiak lagundutako jarduera burutuko da, emandako laguntzaren xedea bete egingo da eta jarduera horrek Nafarroaren garapenerako ekarpen eraginkorra egingo duela bermatuko da. Laguntza publikoek kalitatezko lanpostu eta lan baldintzak sortzen lagundu behar dute eta ez dute biderik eman behar jarduera ekonomikoak deslokalizatzen.

Europar zehar zabalduetako arazoa izanik, Europako erakundeek neurri juridikoak hartu dituzte, Europako Erkidegoak finantzatzen dituen enpresek ez ditzaten euren jarduerak deslokalizatu. Mahai gaineratu diren neurri horien xedea Europar Batasunak enpresei emandako laguntzak berreskuratzea da, laguntza jaso eta zortzi urte igaro aurretik enpresak bere jarduerak deslokalizatzen baldin baditu. Era berean, Europako Parlamentuak eskatu du enpresa horiek Egitura Funtsetatik edo estatu-laguntzetatik kanpo gera daitezela deslokalizazioa egiten dutenetik zazpi urte igaro arte.

Europar Batasunak bezala, Nafarroak ere beharrezkotzat jotzen du enpresei arauak ezartzea, eta, foru lege proposamen honetan, baliabide publikoak jaso ondoren deslokalizazioaren bideari ekiten dioten enpresak (produktzio osoa edo zatirik handiena kanpora eramanez) azkeneko hamar urteetan jasotako laguntza guztiak itzultzerara behartuta geratzen dira. Deslokalizazioaren fenomenoari aurre egiteko neurriak hartu izan dira aurretik ere, Nafarroako sare industriala babestu eta indartzeko baliagarriak izan direnak eta ekimen desberdin gehiagoren bidez osatzen joan direnak. Foru lege honen bidez beste urrats bat eman nahi da norabide horretan.

II

Bi kapitulutan banatutako zortzi artikulua eta bi xedapen ditu foru lege honek. Lehen kapituluan foru legearen xedea zehazten da, nafar sektore publikotik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazioen aurrean izan beharreko arauak zehaztuz. Hurrengo bi artikuluetan foru legearen aplikazio eremu subjektibo eta objektibok zehazten dira. Laugarren artikuluan enpresak deslokalizatutzat jotzeko beharrezkoak diren

baldintzak zehazten dira. Bigarren kapituluak laguntza publikoen aurrean Nafarroako enpresek hartu beharreko konpromisoak zehazten ditu. Izan ere, laguntza publikoak jasoko dituzten enpresek deslokalizaziorik ez burutzeko konpromisoa hartu beharko dute. Hurrengo atalean Nafarroako Gobernuak deslokalizazio kasuen deklarazioa burutzeko prozedura zehazten da. Zazpigarren atalean, dirulaguntza publikoak jaso ondoren deslokalizazioa burutu duen enpresak laguntza hauek itzultzeko duen betebeharra arautzen da. Azken artikuluan, deslokalizazio prozesuen inguruko ezagutzan sakontzeko batzorde baten eraketa arautzen da.

Xedapenetan, Nafarroako Gobernuari foru legea interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak bideratzeko ahalmena ematen zaio eta foru lege honen aplikaziorako beharrezkoak diren diru zuzkidurak aurrekontuan sartzeko betebeharra arautzen da. Azkenik, foru legea indarrean sartzeko epe eta baldintzak zehazten dira”.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea, ñabarduren eta doikuntza tekniko txikien bidez.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2020ko urriaren 27an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pandemiak iraun bitartean baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologi-

koari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko. Neurri horien artean proposatzen dugu aisialdiko jarduera seguruen egitarau bereziak eta COVID-19aren albo-ondorioak minimizatzeko laguntza psikologikoko programak antola daitezela, prebentzio neurriak eta gida informatiboak jendarteratu daitezela pandemia-egoeran osasun integrala sustatzeko eta antsietateari eta isolamendu sozialari aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait azkarren deitu dezan Adinekoen Kontseilua, proposatutako neurriak elkarrekin lantzeko”.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko arauari buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2020ko urriaren 28an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko arauari buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aur-

kezteko egin beharreko lanak. Mozioa Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko irailaren 29ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias